

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoen artean, proiektua aurrera eramanean ahal izateko erabiliko dugu:

- Lanerako bulego biltegi bat, Hernaniko zonalde industrialean. Bertako bulegoak handiak dira, eta bulegoa bera, laborategi bat eta biltegi bat edukitzeko ahalmena edukiko dugu.
- Telefonoak, bulegoan zehar mugikor batzuk edukiko ditugu bai gure artean eta hozkailu enprekin komunikatzeko.
- Lokalean behar ditugun altzariak.
- Ordenagailuak.
- Laborategi bat bazkideak diren hozkailu enprekin I+G+b elkarlanean aritzeko.
- Laborategiko instalazioak, makinak, frogak egiteko sistemak...
- Kotxe bat komertzial lanak egiteko.



**Baliabide intelektualen** artean bi patenteak ditugu (aplikazio patentea eta hozkailu teknologiaren patentea); eta **giza baliabideen** artean gure arteko (taldekoen) gaitasunak sartzen ditugu; esterako Aioraren lidergoa: berak hozkailu enprekin koordinatuko gaitu, taldea eta lana banatuko du...; Rakelen informatikako eta webgunetako jakituria: berak aplikazioa diseinatuko du, eta denborarekin hobetzen joango da...; Kevinek dauzkan salmentarako eta antolaketarako abileziak: berak enpresa berrietan gure ideia salduko du, inbertsore berriak bilatuko ditu...; eta Iraiaren sormena: berak ideia berriak sortuko ditu hozkailu eta aplikazioan sartzeko... .

Azkenik, **finantza-baliabideetan** proiektua aurrera eramateko dugun kapitala sartzen da. Hasierako inbertsioak handiak direnez 25.500€ , bazkide bakoitzak %20a jarriko du, eta 4 garenez, 20.400€ edukiko ditugu. Gauzak honela eginda 5.100€ faltatzen direla ikusi dezakegu, horregatik 4 hozkailu enpresek diru kantitate hori jarri beharko dute: bakoitzak 1.225€. Enpresa bakoitzak kapitalaren %5-aren aportazioa edukiko du. Gure enpresa SL bat izango da.

